

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezien gaineko zerga kobratzeko aldia irekitzea, 2025eko ekitaldia

Nik, Erika Letamendi Hurtadok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkatea,

jakinarazten dut 2025eko abuztuaren 25etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, ordainarazpen hauen 2025eko ordainagiriak:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2025eko abuztuaren 25etik irailaren 25era.

B) Epe exekutiboa: 2025eko irailaren 26tik aurrera epe exekutiboari emango zaio hasiera, eta epe exekutiboko errekaruak, premiamendu murriztukoak eta premiamendu arruntekoak ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainlekuak:

- Kutxabanken bulegoak.
- Laboral Kutxaren bulegoak.
- Interneten bidez, Donemiliagako Udalaren web orrian: <https://donemiliaga.eus/eu/udala> (Nire ordainketa).

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Donemiliagako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2025eko uztailaren 3a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO